

L'ÉCOLE DE DANSE

ELGOYHEN

DANTZA IKASGIA

Dantza eta betikotarziina
Danse et immortalité



• **Eskertzen dütugü**

Remerciements

Dominique Nicibar Bürgübürü

Maiana Nicibar / Mikel Duvert / Allande Socarros

Jakilegoa emaileak / Les témoins

• **Erakusketaren arduraduna**

Commissariat d'exposition :

Mathilde Caraminot

• **Ekoizpena / production :**



www.elgoyhen.soka.eus

L'ÉCOLE DE DANSE

ELGOYHEN

DANTZA IKASGIA

Dominique Nicibar Bürgübürü, Atharratzen sortu zen, 1930eko abentüaren 24an. Dantzari familia ezağün batetako izatez, bere lehen püntüak eta ürratsak 10 urtetan ikasi zütüen bere osaba Johañe Bürgübürüekin. 1946ko maskaradetan dantzari ezinago trebe bat ikustez piztü zeion dantzaren eretzeko tirria. Hortarik landa, Beñat Elgoyhenen dantza ikasgian sartü zen. Ganoa ükenik, fite joan zen goiti: 1947an, Küküilero, eta bertanxka, maskaradetako bost dantzari hoberenak diren Aitzindarietan. Xiberotik kanpo ere sortidak egiteko paradak üken zütüan, hala Donostiara (1951) nola Iruñera (Miarritze-Iruña nazioarte folklore jeialdia 1953).

Dominique Nicibar Bürgübürü est né le 24 décembre 1930 à Tardets. Issu d'une famille de danseurs renommés, il apprend les premiers pas de danse souletine avec son oncle à 10 ans, Johañe Bürgübürü. Il commence à se passionner pour la danse au cours des mascarades de 1946, en voyant la prestation d'un danseur virtuose. Il intègre les cours de Beñat Elgoyhen à Tardets. Danseur doué, il gravit vite les échelons, *Küküilero* en 1947, puis *Aintzindari*, un des cinq meilleurs danseurs des mascarades. Il a l'opportunité d'effectuer, entre autres, des tournées à Saint-Sébastien (1951) et à Pampelune (Festival de folklore international de Biarritz-Pampelune 1953).



Dantza eta betikotarziina

Danse et immortalité



L'ÉCOLE DE DANSE

ELGOYHEN

DANTZA IKASGIA

Beñat Elgoyhen (1888-1959),

Xiberoko dantza-jauzietako funtsezko pertsonaje bat da. Tolosan (Okzitania) egin zūan soldadoka denboran, bürüzagiek Capitoile delakoala igorri zūen dantza klasiko eskolatzeen hartzera. Hala, dantzaren ikasgarzteko manera barnatūago elibatez jabetū zen. Soldadokatik arrajinik, 1910ren altexean, dantza ikasgia bat plantatū zūan Atharratzen, zointan ere Basabürūko dantza-jauzi emaile gūziak trebatūko ziren. Elgoyhen ariako hiru gizaldik erauntsi zūen dantza-jauzien erakasle lanetan: Joseph Elgoyhen (1855eko ürrietaren 10a - 1913ko apirilaren 20a), haren seme Beñat Elgoyhen (1888ko barantailaren 16a - 1959ko setemeren 17a), eta azkenik Jūje Elgoyhen, 1970. urteala artino. Egūnko egūnean orano, dantza-jauzi emaile elibat Elgoyhen ikasgiako jarraikizale gisa bürhagertzen dira.

Dominique Niçibar Bürgübürüren (1930, Atharratze / Astūe) argazki bildūmak denboraren gainti kurriarazten gütū, Beñat Elgoyhenek Atharratzen plantatū zūan dantza-jauzi ikasgiaren bide-ürratsetarik. Dominique Niçibarrek eman eta haren alaba Maianak izkiribūz ezarri xehetarzūnek oritzapenez eta gertakari kontatzez bezitzen dütūe argazki horik.

Argazkiek agerialat ekarten deizkūe dantzan arizaleek inportantzia handiko bezala emaiten dütūen gertaldi elibat. Oro har, gizaldiz-gizaldiko ondoretarzūn bat bezala, dantzaren igaranaraztearen indarra erakusten dūe, betikotarzūn batetara eramanez.

Beñat Elgoyhen (1888-1959) est un grand personnage de la danse souletine. Durant son service militaire à Toulouse, les gradés l'envoient au Capitole prendre des cours de danse classique. Il en tire des méthodes d'apprentissage de la danse plus approfondies. À son retour vers 1910, il monte une école à Tardets, qui accueille et forme tous les danseurs de Haute-Soule. L'école passe trois générations aux mains de la famille : Joseph Elgoyhen (10 octobre 1855 - 20 avril 1913), son fils Beñat Elgoyhen (16 février 1888 - 17 septembre 1959), puis le dernier relais avec Jūje Elgoyhen jusqu'en 1970. Aujourd'hui encore, des danseurs se revendiquent de l'héritage de l'école Elgoyhen de Tardets.

Le fonds photographique de Dominique Niçibar Bürgübürü (1930, Tardets) nous invite à un voyage à travers le temps, avec l'école de danse souletine de Tardets fondée par Beñat Elgoyhen. Les photographies sont accompagnées de commentaires fournis par Dominique Niçibar et retranscrits par sa fille Maiana. Ils sont le récit de souvenirs découlant de ces images, prétexte à anecdotes. La photographie permet d'immortaliser des moments considérés comme importants pour les praticiens, est fait ainsi le choix de souvenirs. Ici, elle montre la force de la transmission de la danse, un héritage de génération en génération, la rendant immortelle.



1945 - Atharratze - Beñat Elgoyhen bere ikasleen eskolatzen.

« Gazte gaztedanik, Elgoyhen ikasgiakoak dantzaren funtsezko tekniken ikaste zorrotzetara kostūmatūrik ziren. Haatik, pūntūak goizik erakatsirik balin baziren, entretaxak eta frisatak ikasgarzitik ziren dantzariak horien egiteko korpitz-ahalak bildū zütūaneko. Arren, gazte-gazterik eta ürratsez-ürrats egiten zūen lan arraheinari esker ziren dantzari horik Elgoyhen ikasgiari aitortzen zeion trebetarzūn heineala heltzen. »

1945 - Tardets - Beñat Elgoyhen accompagnant ses élèves.

« Dès leur plus jeune âge, les danseurs de l'école Elgoyhen étaient soumis à la rigueur des fondamentales techniques de danse. Toutefois, si les assemblés et les pas étaient très tôt appris, les entrechats et frusat l'étaient lorsque le danseur possédait les capacités physiques nécessaires à leur réalisation. C'est grâce aux efforts et à l'application fournis dès leur plus jeune âge, que ces danseurs sont arrivés, étape par étape, aux qualités des danseurs de l'école Elgoyhen. »



1954 - Uharte-Garaziko jeiak - Atharratzeko dantzariak.

« Elgoyhen ikasgiako dantzariak aritzen ziren üsū pelota partiden hatsarre eta ürrentzetan. Holako agerraldiek, Atharratzeko dantzari paradan eman zeilen Eūskal Herriko jei aipatūenetara sortidak egiteko: Donajoane-Garazi, Uharte-Garazi, Donapaleu, Azkaine, Sara, Arrangoitze, eta beste... Biarnoan eta Bigorran ere ardūra erauntsi zūen. Ūda partean, Dominique Niçibar Bürgübürüren denborako atharratzer dantzariak astean hiru sortida artino egiten ahal zütūen. »

1954 - Fêtes d'Uhart-Cize - Danseurs de Tardets.

« Les danseurs de l'École Elgoyhen furent souvent associés au début et à la fin des parties de pelote. Ce genre de représentation a permis aux danseurs de Tardets de se montrer dans les grandes fêtes du Pays Basque : Saint-Jean-Pied-de-Port, Uhart-Cize, Saint-Palais, Ascain, Sare, Arcangues, etc... Ils se sont produits fréquemment en Béarn et Bigorre également. Pendant la période estivale, pour la génération de Dominique Niçibar Bürgübürü, le groupe de Tardets pouvait avoir jusqu'à trois sorties hebdomadaires de la sorte. »

Dantzari aritzeko paradak

Les occasions de danser



1937 - Atharratze - Maskaradak. Entseñari: Batista Aguer Bürgübürü / Errejent: Beñat Elgoyhen.
1937 - Tardets - Mascarades. Entseñari: Batista Aguer Bürgübürü / Errejent: Beñat Elgoyhen.



1947ko urtarilaren 1a - Gerla ondoko lehen maskaradak, Atharratzen.
Exkerretik abiatzez, 2. herrokan: 2016. urteko pastoralean gorapatürük zen Jean PITRAU.
Txerrero: Berho / Gatüzain: Jaki Saint-Amant / Zamaltzain: Xengrat Mateo / Kantiniersa: Mateu / Entseñari: Joseph Elgoyhen / Jaun: Haitxondo / Andere: Gabriel Escanda / Lloba: Jean Pierre Erpinartegaray.



1950 - Atharratzeko jeien ostegüna / Fêtes de Tardets le Jeudi



1946 - Atharratzeko merkatü plaza.
« Lerdo egünez, maskaradak - heben, Urdiñarbeoak - Atharratzerat jiten ziren. Ez zen pentsatzekoa ere Atharratzerat jitea eta Bralerik ez emaita. Maskarada elibat beno haboro agitzen bazen jile, Bralea emanen züena xortatzen zen. »



1908 - Atharratze - Charlemagne pastoralarentako, Beñat Elgoyhenek, 20 urte doi-doia zütüalarik, eskolatü lehen haurrak.

1908 - Tardets - Premiers enfants formés par Beñat Elgoyhen pour la Pastorale Charlemagne alors qu'il avait juste 20 ans.

1946 - Place de Tardets.
« Durant le Jeudi gras Tardets recevait chaque année les mascarades, ici celle d'Ordiarp. On ne pouvait concevoir aller à Tardets sans danser le branle. Lorsque plusieurs mascarades s'y retrouvaient, celle qui dansait le branle était tirée au sort. »



Dantzak eta agerraldiak

Danse et représentation




1930 - Elgoyhen dantza ikasgia Hego Eüskal Herrian.

« Dantza agerraldi baten argazkia, hürüntik harturik: Batista Aguer Bürgübürü eta konpainia Hego Eüskal Herriala jelkitze hartan parteliant ziren. Etxerat erretiratü ziren Espainiako mügen zerratzearen mezperan. Biharamenean berean piztü zen Espainiako iraültza »

1930 - Ecole Elgoyhen en Pays Basque sud.

« Plan large pendant une représentation : Batista Aguer Bürgübürü faisait partie avec son équipe de cette sortie en Espagne. Ils sont revenus en France la veille de la fermeture des frontières. Le lendemain la révolution espagnole a éclaté. »



1908 - Primaka bat Atharratzen.

« Primaka edo dantza lehiaka bat 1908. urtean, Atharratzeko merkatü plazan, zoinetan lehentze parte hartzen züen Beñat Elgoyhen ikasgiako gazteek. Epailak zokoan ageri dira, barandaren pean. »

1908 - Primaka à Tardets.

« Concours de danses, Primaka, en 1908 sur la place de Tardets avec pour la première fois les enfants de l'école Beñat Elgoyhen. Le jury se trouve au fond sous le balcon. »



1951 - Dantzari talde bat Hego Eüskal Herrian.

« Elgoyhen ikasgian bildü trebetarüzinarekin erauntsi züen dantzan, bihotz altxazale giro batetan eta harrotarüzinez. Zamaltzain izatekoa zen Erreçaret Hauze nahiago zen Entseiñari izan, eta, arren, Dominique Niçibar agitü zen kargü hortan. Lehentze züan hori egiten. Zamariaren büria eskü okerrez etxekitzen dü, esküinarekin, azotea exkerrekoan düalarik. »

Exkerrik esküineala: Xotal xirularekin, Laffargue Txerreroz, Phino Gatüzainez, Eliçabehere Kantiniarsaz, Niçibar Zamaltzainez eta Erreçaret Enseñariz.

1951 - Groupe en Pays Basque Sud.

« Ils exécutèrent leur art appris dans l'École Elgoyhen, dans des conditions fortes en émotion et en désir d'émancipation. Celui qui faisait Chevalet Erreçaret de Haux préférait être Porte-Drapeau et a donné ce rôle à Dominique Nicibar. C'est la première fois qu'il faisait ce rôle-là. Il tenait la tête avec la mauvaise main : le cheval avec la droite et le fouet avec la main gauche. »

Chotal Xirula, Laffargue Txerrero, Phino Gatuzain, Elizabehere Kantiniarsa, Nicibar Zamaltzain, Erreçarret Entseiñari.



1954 - Maule-Lextarreko primaka, Jüje Elgoyhenen taldekoek irabazirik.

« Taldeka egin ohi ziren azken lehiaka zen. Dantzariak egiten ziren notatzeak: bakoitxak bildü noten gehitzeak emaiten züan irabazlea. Argazki hontan ageri den Atharratzeko taldeak züan primaka hori irabazi. »

1954 - Primaka à Mauléon, remporté par l'Equipe de Jüje Elgoyhen.

« C'est le dernier concours sous la forme traditionnelle par équipe. La notation se faisait individuellement : le total des points donnait le vainqueur. L'équipe de Tardets, sur la photo, a gagné ce concours. »



1951 - Donostiako zezenplazan agerraldia / Spectacle aux arènes de Donostia.



Eretzean jarateak

Jeux d'opposition



• HAURZAROTIK GEHITZEALA.

1918 - « Lehen Mündü Gerlan, Atharratzeko kantonamentuko gizon gazte hanitx hil bazen ere, dantzari talde ederak plantatü ziren 1919. eta 1935. urteen arte hortan. Dantzari horik Beñat Elgoyhenengana teknikaz hobetzera jiten ziren. Eskolatzek haren etxen agitzen ziren, üsüenik merkatü egün arratsetan. »

Exkerretik esküineala: Esconobiet, Karrikiri, Haranburu eta Pette eta Auguste Elichiry anaiak.

• DE L'ENFANCE À L'ÂGE ADULTE.

1918 - « Malgré de fortes pertes humaines dans le canton de Tardets dues à la Première Guerre Mondiale, la période de 1919 à 1935 donna de splendides équipes de danseurs qui vinrent se perfectionner chez Beñat Elgoyhen. Les cours se passaient chez lui le plus souvent les soirs de marché. »

De Gauche à Droite : Esconobiet, Karrikiry, Haranburu et les frères Pette et Auguste Elichiry.



• DANTZA ETA GENEROA.

1953 - Sainte Héléne pastorala Ligin arra-emaitean, emazteak dantzan ari.

« Exkerretik esküineala: Moretti - Bohope - Bilho - Sabükidoy - Xopa kantiniersaz, Satanen orde. Guillaume Bouchet zen pastoraleko errejenta, eta Elgoyhenek zütüan emazte dantzariak eskolatü. »

• LA DANSE ET LE GENRE.

1953 - Pastorale Sainte Héléne rejouée à Licq, les femmes qui dansent.

« De gauche à droite : Moretti - Bohope - Billho - Sabükidoy - Xopa en Cantinières à la place de Satans. Guillaume Bouchet était l'Errejent de la pastorale, secondé par Elgoyhen pour former les femmes à la danse. »



1945 - Atharratze - Beñat Elgoyhen bere ikasleekin / Tardets - Beñat Elgoyhen avec son école.



• TAULADAN NAHIZ PLAZAN, DANTZA BETI BERE ETXEN.

1930 - « Pastoralako bi Satan, zoinen xügün eta lerden biak, frisat doble baten emaitan: Jean Baptiste Aguer eta Antton Iragoinborda. »

• ART DE SCÈNE OU ART DE RUE.

1930 - « Deux satans de pastorale tenant ensemble une position parfaite du corps pendant l'exécution d'un frisat doble. Jean Baptiste Aguer et Antton Iagonoborda. »



• GIBELALDEALAT SO EGINEZ: TREBATZEA.

1890-1900 - Lau gizon, dantza arropetan, trebatze batetan, Atharratzen. Exkerretik esküineala: Jean Aguer BÜRGÜBÜRÜ - Beñat Chouritegi - Gameta, Afios.

• L'ENVERS DU DÉCOR : LES ENTRAÎNEMENTS.

1890-1900 - Quatre Hommes (dont Jean Aguer BURGUBURU) en costume pendant un entrainement à Tardets. De gauche à droite : Jean Aguer Burguburu - Beñat Chouritegi - Gameta et Afios.



1909 - Lehen emazte pastorala: Sainte Héléne, Urdiñarben.

« Urte hartan, bi pastoral agitü ziren, Urdiñarben: xuriena bata, Sohütako Héguiphaph errejentarekin ; gorriena bestea, Jean Aguer BÜRGÜBÜRÜ errejentarekin, honen geia zelarik "Sainte Héléne". Gorrien pastoral denboran, jargia elibat bat erori ziren, sartzearen pakatzeko ahalik ez ükenez horien pean gorderik ziren bi jente ehaitez. Biharamenetik, gaixki egite baten ondoajea izan zateala zabaltü ziren erran-merranak... »

1909 - Première pastorale féminine "Sainte Héléne" à Ordiarp.

« Cette année-là, il y eut deux pastorales à Ordiarp : une au village avec les blancs par Heguiphaph de Chéraute et l'autre des femmes avec Jean Aguer BÜRGÜBÜRÜ, « Sainte-Héléne ». Durant la représentation une tribune s'effondra faisant deux victimes sous les gradins : elles n'avaient pas les moyens de payer l'entrée du spectacle. Des soupçons de sabotages se propageront dès le lendemain ... »



Dantzari eskolazalearen aripena eta goraiipamena

Rôle et célébration du maître à danser



1890-1910 - Bürgübürü errejenta - Pastoral idazlea



1890-1900

Jean Aguer pastoreko errejenta ttottotürik eta potret harzaleari so, paper elibat esküetan dütüala.

Jean Aguer Bürgübürü (1865-1927)

« Atharratzeko (Astüeko) Bürgübürüa etxondoan sortü zen Jean Aguer, 1863. urtean. Armadan ofizioa nahi zükean egin, bena seme bakoitxa izatez, aitarean hiltzean, behar üken züan sartü, etxaltearen joanarazteko. Haatik, laborantxarentako ez beitzüan sobera ganorik, kantonamentüko bideen traza honean etxekitzeko, bidekari büruzagi lan batetara plantatü zen. Etxenkoekila ez zen hanbait kostümatürik izan dantzala edo pastoraletara, bena horietan lakeü zen. 1900.a aitzin, pastoral errejent eta dantza eskolazale egin zen. Lau pastoral pürü izkiribatü zütüan. Urdiñarben, 909an, eman zen "Sainte Hélène" emazte pastoreko errejenta izan zen. Jean Aguer Bürgübürü izan zen ere, Beñat Elgoyhenen dantza erakaslea, honek ez beitzütüan ikasi nahi bere aitarekin.»

1890-1900

Errejent de pastore, Jean Aguer assis regardant l'objectif avec des papiers dans ses mains.

Jean Aguer Bürgübürü (1865-1927)

« Jean Aguer Bürgübürü né en 1863 dans la maison Bürgübürü de Tardets (Restoue). Il aurait voulu faire une carrière militaire, mais étant fils unique, à la mort de son père, il rentra pour s'occuper de la ferme. Comme il n'avait pas trop de goût pour la terre, il trouva un poste de chef cantonnier, responsable des routes du canton. Son milieu familial ne l'a pas prédisposé à la danse ou aux pastorales, mais il y trouva son plaisir. Avant 1900, il fut errejent de la pastore et maître de danse. Il a écrit au moins 4 pastorales. Il fut entre autres errejent de la fameuse pastore donnée à Ordiarp en 1909. Jean Aguer Bürgübürü fut le professeur de danse de Beñat Elgoyhen qui ne souhaitait pas apprendre avec son père. »



1953 - Guillaume Bouchet, Ligin eman zen emazte pastoreko errejenta, tauladaren gainen dantzan.

1953 - Guillaume Bouchet, errejent de la pastore de femmes de Licq, dansant sur scène.



1945 - Hurren maskarak / Mascarade des Enfants.



1986 - Baratçabal jaunaren ohorez, dantzatze.

« Baratçabal jaunaren 70. urtebürüen ospatze. Hau zen Bordeleko 'Biltzarra' taldearen sortzale eta presidentordaria, Elizondo kolonelarekin batean. Püntü hetan, Duffau jauna zen Bordeleko Euskal Etxeko büruzagia. »

1986 - Danse pour Monsieur Jean Baratçabal.

« Anniversaire des 70 ans de Monsieur Jean Baratçabal, vice président et créateur du groupe Biltzarra à Bordeaux, secondé par le colonel Elizondo. Le président de l'Euskal Etxea de l'époque était Monsieur Duffau. »



Tradizionea eta jarraikiaraztea

L'école de danse Elgoyhen



1890 - Dantzari talde bat jokü-arropetan.

« Argazki hau da bildümako zaharrena. Aitzindarietarik badira lau: Txerreroa, Kantiniersa, Zamaltzaina eta Ensenaria. Ikusten ahal da ez zela orano Gatüzainik, hau XX. mente hatsarreen beita lehentze agertü. Peko herrokan ezagützen dira: Jauna, Anderea, Laboraria, Laborarisa, eta Kerestua »

1890 - Photo de groupe en costumes.

« Cette photo est la plus ancienne de la collection : année 1890. Dans ces personnages, il y a les 4 premiers danseurs : Txerrero, Kantiniersa, Zamaltzaina et Ensenaria. On peut reconnaître parmi eux Jean Aguer-Bürgübürü de l'École Bürgübürü, en Zamalzain. A noter qu'il n'y avait pas encore de Gatüzain, qui est apparu seulement au début du XXème siècle. Dans la rangée du bas, on trouve : Jauna, Anderea, Laboraria, Laborarisa, et Kerestua . »



1901eko apirilaren 21a - Liqj-Aterein eman zen Jean de Calais pastoraleko arizale saldoaren argazkia.

« Püntü hetan pastoral agerraldiek egün oso irañuten züen eta tauladaren gainen emaiten ziren 600 bertsetekila 7/8 orenetako agerraldiak ziren. Entrada, Sortida eta Jelkaldiak egünko egüanean beno labürrago ziren, eta bizpahiru kantore baizik ez zen saldoan emaiten. Pastoral hontako arizaleen artean (lürankari, eskalanpuinero, maiastürü, tratülant...) zonbaitek ez zakien ez irakurten eta izkiribatzen, non ez zen eüskaraz baizik. Hortarako, kargüen ikasteak ahomintzoz bera egiten ziren. »

21 Avril 1901 - Photo de groupe pastorale « Jean de Calais » jouée à Licq-Athérey.

« A cette époque, la manifestation durait toute la journée et les 600 « couplets » chantés sur scène représentaient 7 à 8 heures de spectacle. Les entrées et sorties de scène étaient plus courtes qu'à présent et seulement 2 à 3 chants étaient interprétés en chœur. Parmi les acteurs de cette pastorale (cultivateurs, sabotiers, charpentiers, commerçants...) certains étaient illettrés, d'autres ne savaient lire et écrire qu'en basque. L'apprentissage des rôles de chacun devait donc se faire oralement. »



Elgoyhen ikasgiako 1951. urteko dantzari taldea Donostian plantatü zen Eüskal Herriko zazpi probintzietako dantzarien algarganatze batetara kümitatürük izan zen.

« Sortida hau giro aski gogor batetan agitü zen. Hendaian mügaren igaraita ez zen aisenetarik izan, zeren eta bi jentez beno haboroko taldeak algarretaratze debekatü gisa ikusirik beitziren eta gogorki zehatürük. Lehen planoan, saihetsez ageri den gizona, taldeaz axolatzen zen. »

Le groupe de danse de 1951 de l'École Elgoyhen fut convié à participer à un rassemblement à St Sébastien de danseurs basques des sept provinces.

« La sortie s'opéra dans un climat particulièrement tendu : le passage de la frontière à Hendaye ne fut pas sans difficulté et les groupes de plus de deux personnes étaient considérés comme des manifestations illégales et sévèrement réprimés. L'homme en premier plan de profil était chargé de s'occuper du groupe. »



1920 - Kantonamentüko maskaradak, zointan ere haurrak dantzan ari ziren.

« Jauna: Elgoyhen / Gaineko partean, esküinetik hastez, 3.a: Jean Baratcabal / Gaineko partean, esküinetik hastez 5.a: Jean Baptiste Aguer Bürgübürü / Entseñari: Etchegoyen Atharratze / Atabalari: Etxahun Liginaga Txülüleri: Lecharduart Atharratze. »

1920

Mascarades cantonales où dansaient les enfants de l'École.

« Jauna : Elgoyhen / 3eme en haut à droite : Jean Baratcabal / 5eme en haut à droite : Jean Baptiste Aguer Bürgübürü / Porte drapeau : Etchegoyen de Tardets Le joueur de Tambour : Etxahun de Laguinge / Le joueur de Txülüla : Lecharduart de Tardets. »

